
GALERIANOAREN KANTUAK

Doinua: Lili bat ikusi dut / Urzo xuri pollit bat B
Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip)
Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza



Martin Larralde *Bordaxuri*
(1782 Hazparne, Lapurdi –
1821 Rochefort, Frantzia)

Sorta hau Martin Larraldek 1815ean utzitako azken testigantza da, Paueko presondegian sartu zutenean, bizi guztirako galeretara kondenatu zutela jakitun. Bere egia bertsotan jarri nahi izan zuen, sortan dionez, helburu oso argiekin: "(...) Orok kanta ditzaten Hazparne herrian /(...) Eta portikulazki aita, zuretako / kantu hok aditzean semiaz oroitzeko."

Izan ere aitak berak salatu zuen Martin: Plumagaine baserriaren oinordetzagatik liskarretan zebiltzan, eta euren lur sailean gertatu zen hilketa misteriotsu baten errua semeari bota zion aitak. Nonbait, aitak euren baserriko lur sailak mozteko baimena eman zion herriko gizon bati, eta hau belarretan ari zela tiroz hil zuen norbaitek... Baina nork? Ez zen ba aita bera izango...?

Hilketagatik Pauen epaitu zuten Martin Larralde. Epaiketan hainbat lekuko izan ziren, denak euskaldunak, frantsesez fitsik ez zekitenak, eta zuberotar batek itzultzaile lanak egin behar izan zituen, baita frantsesezko agiri guztiak idatzi ere. Epaileek galeretara kondenatu zuten bizitza osorako; zazpi epaile agertu ziren kondenatzearen alde eta bost aurka.

1816an, 35 urte zituela eraman zuten Rochefort hiriko galeretara; galerak beladun itsasontzi handiak ziren eta bertan arraunean ari behar izaten zuten presoek, atsedenik gabe. Lan behartu horietan aritu zen, 1821ean, 40 urterekin, Rocheforteko itsasgizonen eritegian hil zen arte.

"Galerianoaren kantua" ezagun egin zuten Pantxoa eta Peio abeslariek (1969).

Martin Larralderi kantu ezaguna eskainia dio Ruper Ordorika abeslariak, Joseba Sarrionandia idazlearen hitzekin.

1 Mila zortziehun ta hamabortz**garrena**
ni Ahazparnen preso hartu **nindutena**
Plumagaineko premu* orok **dakitena**
galeretan higatu beharko **naizena**.

2 Kantatzera nihazu alegera **gabe**
ez baitut probetxurik trixtaturik **ere**
nehun deusik ebatsi*, gizonik hil **gabe**
sekulakotz galerak enetako **dire**.

* ***premu*** = *oinordeko, maiorazko* ***ebatsi*** = *lapurtu*

3 Ala zorigaitzeko premu **izaitea**!
Harrek eman baiteraut betikotz **kaltea**
aitari galdeginik sortzeko **partea***
galeretan eman nau, hauxe duk **dotea***!

4 Ene aita da gizon **kontsideratua**
semia galeretan du **segurtatua**
nun-nahi otoitzean **belaunikatua**
saindu iduri debru **madarikatua**!

5 Ene lehen kusia*, Cadet, **Bordaxuri**
fagore bat banuke galdatzeko **zuri**
ongi adreza* zaite ene **arrebari**
ene saltzeko zonbat ukan duen **sari**?

6 Aita aitzinean* ta arreba **ondoko**
osaba burjes hori diru **fornitzeko***
ez, ordian enetzat bi sei **liberako***
galeretan bederen leher **egiteko**!

7 Elizan sartzen dire **debozionerekin***
iduriz badohazila saindu **guziekin**
beren liburu eta **arrosarioekin***
debruak pesta onik einen du **heiekin**.

8 Zortzigarren bertsua **aneiarendako**
kontseilu bat banikek hiri **emaiteko**
ontsa* goberna hadi, etzauk **dolutuko***
ni baitan* etsenplua errex duk **hartzeko**.

9 Zuri mintzo nitzaizu, oi, aita **zilarra***!
Ardura* dudalarik begian **nigarra**
zure eta ene arraza **Bordaxuritarra**
galeretan naizeno ni bainaiz **bakarra**.

10 Kantu hauk eman ditut Paueko **hirian**
burdinez kargaturik, oi! **presondegian**
bai eta kopiatu denbora **berian**
orok kanta ditzaten Azparne **herrian**.

11 Hok eman izan ditut, ez **xangrinatzeko***
ahaide*, adixkidek, kuraie* **hartzeko**
eta portikulazki aita, **zuretako**
kantu hok aditzean semiaz **oroitzeko**.

*
partea = *jaiotzatik zegokion partea*
dotea = *ondorengoei ematen zaien ondasuna*
lehen kusia = *lehengusua*
adreza = *zuzendu*
aitzinean = *aurrean*
fornitzeko = *biltzeko, jasotzeko*
liberako = *garaiko dirua zen libera*
debozionerekin = *debozioarekin, Jainkoarekiko miresmenez*
arrosarioekin = *errezorako lepokoa, otoitzak kontatzeko aleduna*
ontsa = *ongi*
etzauk dolutuko = *ez zaik damutuko*
ni baitan = *nire baitan, nigan*
zilarra = *dirdiratsua*
Ardura = *Sarri, etengabe*
xangrinatzeko = *disgustatzeko, sufritzeko*
ahaide = *senide*
kuraie = *kuraia, adorea*